

ISPASTERKO I. HAUR ETA GAZTE LITERATURA LEHIAKETA

INFORMAZIO GEHIAGO



ISPASTERKO UDALA

Elexalde 9.
48288 BIZKAIA

94 684 29 99

www.ispaster.net





ISPASTERKO UDALAK, HERRIKO HAUR ETA GAZTEEN ARTEAN EUSKAL LITERATURA SUSTATZEKO ASMOZ, 2017KO HAUR ETA GAZTE LITERATURA- LEHIAKETARAKO DEIALDIA EGIN DU OINARRI HAUEN ARABERA:

PARTE HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan parte-hartzaileek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- 2002 eta 2011 urteen artean (biak barne) jaiotakoak.
- Gaur egun Ispasterren erroldatuta egotea edo Ispaster HLHIn matrikulatuta egotea.

Lehiaketan parte hartzeak oinarriak oso-osorik onartzea dakar.

LANAK

Parte-hartzaile bakoitzak idazlan bat aurkeztu behar du, gehienez 300 hitzekoa. Lanak euskaraz eta originala izan behar du, argitaratu gabea eta inongo lehiaketara aurkeztu gabea. Halaber, gaia librea izango da.

KATEGORIAK

Ondorengo kategorietan banatuko da lehiaketa:

A KATEGORIA: 2009-2011 urteetan jaiotakoak.

B KATEGORIA: 2006-2008 urteetan jaiotakoak.

C KATEGORIA: 2002-2005 urteetan jaiotakoak.

LANAK AURKEZTEKO BIDEAK

Lanak entregatzeko epea 2017ko abenduaren 22an bukatzen da. Halaber, lanak entregatzeko bi bide daude:

A aukera: posta elektronikoz kulturetxea@ispaster.net helbidera mezu bakar batean idatziz:

- Alde batetik, lana PDF formatuan eta goitizenez sinatua (ez da egilearen datu pertsonalik agertu behar).
- Eta bestetik, datuen fitxa beteta (www.ispaster.net webgunean eskuragarri).

B aukera: Ispasterko udalean entregatu gutun-azal handi batean sartuz:

- Alde batetik, lana PDF formatuan eta goitizenez sinatua (ez da egilearen datu pertsonalik agertu behar).
- Eta bestetik, datuen fitxa beteta (www.ispaster.net webgunean eskuragarri).

EPAIMAHAIA

Epaimahaia Ispasterko Udalak izendatuko du eta epaimahai horren erabakia apelaezina izango da. Araudi honetan aurreikusi gabeko edozein zalantza edo arazo ebazteko eskumena izango du epaimahaiak. Aurkeztutako obra kopurua espero baino handiagoa bada, atzerapena izan dezake, epaimahaiak ipuinak irakurtzeko eta aztertzeko aski denbora izan dezan.

SARIAK ETA SARI-BANAKETA

Ondorengoak izango dira sariak:

A kategoriako lan onena: liburuetan 100 euroko balioa duen txartela eta diploma.

B kategoriako lan onena: liburuetan 100 euroko balioa duen txartela eta diploma.

C kategoriako lan onena: Mendexa Abentura Park-erako bi sarrera, liburuetan 75 euroko balioa duen txartela eta diploma.

Epaimahaiaren arabera aurkeztutako testuak ez badira beharrezko kalitate mailara iristen, sariak eman gabe gera litezke.

Sari-banaketa Ispasterko Udal Liburutegian egingo da 2018ko urtarrilaren 5ean arratsaldeko 18:00etan.

ZABALKUNDEA

Aurkezturiko lanak Ispasterko udalaren esku geratuko dira. Udalak bere webgunean edo beste komunikabide zein euskarritan argitaratu ahalko ditu, egilea aipatuz betiere. Era berean, Ispasterko udalak lehiaketan egindako argazki eta bideoak erabili ahal izango ditu.

LAGUNTZAILEAK

